Ayuntamiento de **LANTARON** (Alava)

LANTARONGO Udala (Araba)

Calle del Ayuntamiento, 2 • 01213 - **COMUNION** • Teléfono: 945 33 20 24 • Fax: 945 33 28 78 • alantaron.alvaro@ayto.araba.eus

IZAERA SUBJEKTIBOKO HOBARIA, ONDASUN HIGIEZINEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALEAN AURREIKUSITAKOA (FAMILIA-UNITATEAREN ERRENTAREN ARABERA). 2021

Honen bidez jakinarazten da hobari bat ezartzen dela Ondasun Higiezinen gaineko Zerga arautzen duen Ordenantza Fiskalean. Hobaria etxebizitzaren erabilera esklusiboko eskubide bat izanik ohiko bizileku duten titularrei ezarriko zaie, higiezin osoaren edo horren zati baten gainean, titular horien familia-unitateen diru-sarrerak kontuan hartuta.

Hobariak Lantarongo udalerrian etxebizitza erabilerarako beste higiezinik ez duten familia-unitateei aplikatuko zaizkie, eta, gainera, higiezin hori euren ohiko etxebizitza izan beharko du.

Hobariaren zenbatekoa ondorengo taulan azaltzen da:

Familia-unitatearen errenta	%hobaria
0tik 14.000 eurora bitartean	%95
14.000,01etik 25.000 eurora bitartean	%35

Taulan jasotzen diren errenta-tarteak eta portzentajeak titularren familia-unitateetako kide guztien errentak kontuan hartuta aplikatuko dira. Familia unitatearen diru-sarrerak 25.000,00 euro azpikoak izan behar dute. Familiaren errenta kalkulatzeko, hobaria aplikatuko den aldiaren aurreko bigarren urtean lortutako errentak hartuko dira kontuan, 2019koak, hain zuzen.

Ondasun horien titularrek Udal honetan egin behar dute aipatu hobaria aplikatzeko eskaera, horretarako emango den inprimakia aurkeztuta, betiere 2021ko abenduaren 20a baino lehen. Inprimakiarekin batera familia-unitatearen errentak justifikatzeko agiriak aurkeztuko dira, hauek: jabearen, ezkontidearen edo izatezko bikotearen eta familia-unitateko gainerako kideen Pertsona Fisikoen gaineko Zergaren Aitorpena, eta, autolikidazioa aurkezteko beharrik izan ezean, Arabako Foru Aldundiak edo, hala balegokio, beste probintzia edo lurralde batzuetakoek diru-sarrerei buruz eskainitako datuak, beharturik ez egoteagatik aitorpenik egiten ez duten baina pentsioak, gizarte-laguntzak edo kapital nahiz lan etekinengatiko diru-sarrerak (ez dute aitorpena egiteko muga gainditukо) jasotzen dituztenentzat.

Komunioin (Araba), 2021ko irailaren 20ean.

ALKATEA

Sin.: Javier Uriarte Jairo